NATURA 2(3)
Animaliak

ANIMALIAK
Animalia ornodunak



liveworksheets.com

Egiaztatu zenbat dakizun

Begiratu arretaz laukiari. Osatu zuriguneak kontzeptu bakoitza dagokion lekura arrastan eramanda.

Animalia ornodunak	Taldea	Elikadura	Ugalketa	Gorputza estaltzen du	Arnasketa
Ahatea		Belarjalea			
Lehoia				Ilea	
Apoa			Obiparoa		
Pailazo-arraina					Brankiak
Sugea	Narrastia				

Ezkatak Ezkatak Haragijalea Obiparoa Larruazal Haragijalea Brankiak / birikak

Lumak Hegaztia Anfibioa Omniboroa Haragijalea Obiparoa

Arraina Ugaztuna Birikak Birikak Bibiparoa Birikak Obiparoa

ANIMALIAK
Animalia ornogabeak

Nolakoak dira ornogabeak?

Irakurri arretaz galdera eta klikatu erantzun zuzenean.

- ☐ Animalia ornogabeek ez dute hezurrik ezta bizkarrezurrik ere.
- ☐ Animalia ornogabeek hezurrak dituzte baina bizkarrezurrik ez.
- ☐ Animalia ornogabeek hezurrak eta bizkarrezurra dituzte.

- ☐ Lurrean animalia ornogabeak adina dira ornodunak.
- ☐ Lurrean ornodun gehiago bizi da ornogabeak baino.
- ☐ Ornogabeak dira animalia guztien artean talde ugariena.

liveworksheets.com

- ☐ Eskorpioia habitat urtarreko animalia ornogabea da.
- ☐ Eskorpioia habitat lehortarreko animalia ornogabea da.
- ☐ Eskorpioia aire-habitateko animalia ornogabea da.

- ☐ Txirla lehorrean bizi den animalia ornogabea da.
- ☐ Txirla uretan bizi den animalia ornogabea da.
- ☐ Txirla uretan eta lehorrean, bietan berdin-berdin bizi den animalia ornogabea da.

- ☐ Dietaren arabera, animalia ornogabeak haragijaleak, belarjaleak eta omniboroak dira.
- ☐ Dietaren arabera, animalia ornogabe guztiak belarjaleak dira.
- ☐ Dietaren arabera, animalia ornogabe guztiak haragijaleak dira.

- ☐ Animalia ornogabe batzuk obiparoak dira.
- ☐ Animalia ornogabe bakar bat ere ez da obiparoa.
- ☐ Animalia ornogabe guztiak obiparoak dira.

Moluskuek gorputz _____ dute.

- ○ biguna
- ○ gogorra
- ○ lakarra

liveworksheets.com

Molusku batzuetan oskola _____ da; txibietan, adibidez.

- gainerako moluskuek dutenaren berdina da
- bikoitza da
- desagertu egin da

Moluskuek organo bat dute narras ibiltzeko eta hondeatzeko. Organo horri _____ esaten zaio.

- besoa
- oina
- gorputz-adarra

Harrek gorputz _____ dute.

- zabala
- luzanga
- biribila

Habitata aire-ingurunean duen animalia ornogaberik bada?

- Ez, batere ez.
- Bai, batzuk.
- Bai, denak.

Zenbat kusku ditu muskuilu batek?

- Bat.
- Bi.
- Hiru.

liveworksheets.com

Zertarako balio du moluskuen oinak?

- Narras ibiltzeko, hondeatzeko eta ehizatzeko.
- Narras ibiltzeko baino ez.
- Ezertarako ere ez, eginkizunik gabeko luzakina da.

Ornogabeen artean zer animalia-mota da tenia?

- Har bat.
- Molusku bat.
- Intsektu bat.

Hiru zatitan banatzen da intsektu baten gorputza. Zeinetan?

- Burua, toraxa eta abdomena.
- Burua, toraxa eta oina.
- Bi zati baino ez dira: burua eta toraxa.

Zenbat hegal-pare dituzte intsektuek?

- Bat.
- Bi.
- Hiru.

ANIMALIAK
Kanpoko itxura: ileak, lumak, mokoak, hankak

liveworksheets.com

Zergatik dira desberdinak elkarren artean animalia ornodunak?

- ☐ Guztiek ez dutelako bizkarrezurra.
- ☐ Kanpoko itxurarengatik.

Hegaztien mokoek forma desberdinak dituzte arrazoi hau dela eta:

- ☐ Bizileku duten ingurunera moldatzeagatik.
- ☐ Hegazti batzuek hegan egiten dutelako eta beste batzuek ez.
- ☐ Dituzten hortz kopuruagatik.

Zergatik dago trikuaren gorputza arantzez estalita?

- ☐ Hotzetik babesteko.
- ☐ Ehizatzeko.
- ☐ Etsaiengatik babesteko.

Gepardo batek zergatik ditu hanka bizkorragoak elefante batek baino?

- ☐ Elikagai gutxiago kontsumitzen duelako.
- ☐ Abiadura handian korri egin behar duelako ehizatzeko eta elikatzeko.
- ☐ Elefanteak gepardoak bezain bizkorrak dira.

Zenbat denbora behar da ingurunearekiko moldaketa horiek agerian geratzeko?

- ☐ Etengabe milaka eta milaka urtetan.
- ☐ Behin baino ez duela milaka urte.
- ☐ Animalia jaiotzen den unean.

liveworksheets.com